

- 7) Aurrekontu pertsonal bat egiten eta zer diru-sarrera eta gastu mota dauden bereizten jakitea.
- 8) Modu arrazionalen erabakitzea bere alternatiba ekonomikoen artean, haiek norberaren eta gizartearen ongizatearekin lotzea, eta aurreztearekiko jarrera positiboa izatea.
- 9) Diruaren oinarrizko funtzionamendua jakitea eta banku-kontuen motak eta ordainketa-baliabide moduan ematen diren txartelak bereiztea.
- 10) Administrazio publikoen oinarrizko diru-sarreraren iturriak eta gastuak aztertzea, egoki interpretatzea banaketa hori adierazten duten grafikoak, eta ongi ulertzea zor publikoaren eta defizit publikoaren kontzeptuak.
- 11) Zerga-sistemak errenta birbanatzeko duen garrantzia onartzea eta horretarako zer tresna erabiltzen diren jakitea.
- 12) Enpresei eta pertsona fisikoei ezartzen zaizkien zergak bereiztea eta zerga-betebeharrak betetzeak zer-nolako garrantzia duen ulertzea.
- 13) Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-sistemaren eta lurralde komunekoaren arteko desberdintasunak ezagutzea.
- 14) Interes-tasak, inflazioak, langabeziak eta antzeko magnitudeek zer adierazten duten jakitea eta kontzeptu horiekin lotutako grafikoak interpretatzea.
- 15) Garapenerako politika makroekonomikoko zenbait aukera balioesteko gai izatea, dela garapen ekonomikoa, dela gizarte-garapena.
- 16) Globalizazio ekonomikoak, nazioarteko merkataritzak eta integrazio ekonomikoko prozesuek pertsonen bizitza-kalitatean eta ingurumenean zer eragin duten ulertzeko gai izatea.

5.4.– EKINTZAIETZA ETA ENPRESA JARDUERETARAKO HASTAPENA.

5.4.1.– HELBURUAK.

Hauek dira etapako helburuak Ekintzailtza eta Enpresa Jardueretarako Hastapena ikasgairako:

- 1) Jarrera ekintzailea sustatzea eremu pertsonalean, gizarte-eremuan eta, bereziki, lan-eremuan, eta edozein pertsonak bere garapenean eta bilakaeran izan beharrezko funtsezko printzipioa dela ohartzea. Orobat, haren ondorioak aztertzea, eta, funtsean, ohartu eta bere egitea pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea/problemei konponbidea ematea eta lidergoa jarrera ekintzailea izateko ezinbesteko ekintzak direla.
- 2) Jakitea zer informazio behar den zenbait egoeratan (eta, bereziki, lan-jardueran, dela besteren konturakoa, dela norberaren konturakoa), baliabideak erabiltzea informazio hori lortzeko, eta jarduera ekintzaile bat gauzatzeko beharrezkoak diren prozesuak eta aukera-azterketak egitea.
- 3) Enpresa bat sortzeko oinarrizko faseak eta ekintzak deskribatzea, eta, bereziki, autonomo gisa hastekoak edo ETE bat eratzekoak, eta kasu bati buruzko proiektu edo azterketa bat aurkeztzea (kasuak bideragarritasunari buruz eztabaidatzeko aukera eman behar du).
- 4) Enpresa bateko sail nagusiak edo enpresan egiten diren oinarrizko funtzioak zein diren adieraztea, haietako bakoitzeko helburuak eta eginkizunak deskribatzea, eta azaltzea zer harreman eta betebeharrak dituzten egiten duten jardueran parte hartzen duten eragile, entitate eta erakunde publikoekiko.

5.4.2.– EDUKI MULTZOEN EZAUGARRIAK.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak eduki multzo hauetan biltzen dira:

1. multzoa. Eduki komunak.
2. multzoa. Lana eta ekintzailletza.
3. multzoa. Enpresa, aukerak eta martxan jartzea.
4. multzoa. Enpresa, enpresaren eginkizun edo sail nagusiak.
5. multzoa. Enpresa-proiektua.

Ezbairik gabe, esan daiteke ekimenerako konpetentzia edo, gaur egungo terminoa erabiliz, ekintzailletza azken urteetan arreta handienaz aztertu den konpetentzietako bat dela. Europar Batasunak edozein herritarrentzat beharrezkoak ziren funtsezko konpetentzien zerrenda argitaratu zenean egin zen oso ageriko, eta ordutik aurrera protagonismo handia izan du.

Baina konpetentzia hau beti egon da, eta orain ere badago, zeharka edo berariaz adierazita hezkuntza-sistemako etapa guztietako ikasgaien curriculum gehienetan, Lehen Hezkuntzatik hasita goi-mailako hezkuntzara arte. Izan ere, kontuan izan behar da pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzeko eta problemak ebazteko beharra, eta ekimena izatea gaur egungo irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren hiru ardatz direla.

Horrenbestez, ikasgai honek eta adierazitako helburuek elkarrekin lotuta dauden bi xede dituzte: batetik, lortu nahi da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek ekintzailletza beren bizitzan jarraitu beharreko arautzat izatea, hau da, ekintzaile izatea beren garapen pertsonalean, gizarteko zenbait arlotan, eta, ikasgai honi dagokionez, lan-arloan, bereziki; eta, bestetik, enpresa bat sortzeko ezagutzak eta eginbeharrak jakitera ematea, eta, horren haritik, enpresa baten oinarritzko proiektu bat aurkeztu beharko dute. Dena den, enpresa proiektu bat tresna bat besterik ez da, ikasleak ohar daitezzen zer potentzial eta aukera dakarzkien enpresa bat sortzeko aukera aztertzeak.

Jakina, curriculum zehaztean kontuan izan da helburuak eta ebaluazio-irizpideak nolabait bat etortzea beste etapa batzuetarako eta erkidegoko Lanbide Heziketako beste ikasketa batzuetarako ezarritakoekin.

Dena den, ikasgai honek ekintzailletzari heltzeko modu jakin bat erakusten dio ikasleari: enpresa bat sortzeko ezagutzak ematen dizkio, baina kontuan izan behar du, eta irakatsi egin behar zaio, besteren kontura jardunda ere izan daitekeela ekintzaile (intraekintzaile deritzenak dira), eta ekintzailletzak, konpetentzia moduan, bizitzan hartuko dituen erabaki nagusi guzti-guztietan parte hartuko duela, izan erabakiak norberaren eremukoak, izan lan-arlokoak.

5.4.3.– EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

1) Ekintzailletzari lotutako gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak ezagutzea eta aintzat hartzea, eta lanpostuek eta enpresa-jarduerek zer eskakizun dituzten aztertzea.

2) Bere bizitzari buruzko erabakiak hartzea, eta ulertzea, bere trebetasunak kontuan hartuta, zer enplegu, autoenplegu edota karrera profesional aukera ditzakeen, eta bizitzan zeharreko zer prestakuntza- eta ikaskuntza-alternatiba dituen.

3) Etorkizuneko langile arduratsu moduan jokatzera eta langile moduan zer eskubide eta betebeharrak izango dituen jakitea, Estatuak eta Gizarte Segurantzak langilea babesteko egiten duten lana aintzat hartzea, eta laneko arriskuetatik babesteko beharrezkoak ulertzea.

4) Ikasgelan enpresa-proiektu bat sortzea, eta arrazoitzea zergatik aukeratu duten ideia jakin bat ideien multzo batetik. Orobat, oinarrizko merkatu-azterketak egitea, jarduera-eremuen gaineko eraginak aztertzea, eta proiektuetan balio etikoak txertatzea.

5) Enpresa-proiektuko enpresaren berezko ekoizpen- eta merkaturatze-jarduerak egitea, komunikazio-teknikak erabiltzea, talde-lanean aritzea eta informazioa egoki kudeatzea.

6) Enpresa baten (zehazki, ETE baten) oinarrizko administrazio- eta finantza-kudeaketako jarduerak egitea, kontabilitateko eta zerga-arloko zer betebeharrak nagusi dituzten jakitea, eta dokumentazioa behar bezala betetzea.

5.5.– KULTURA KLASIKOA.

5.5.1.– ETAPAKO HELBURUAK.

Honako hauek dira etapako helburuak Kultura Klasikoa ikasgaiari:

1) Zibilizazio klasikoko gertaera geografiko, historiko, sozial, politiko eta artistiko nagusien berri jakitea, identifikatzea eta aztertzea, eta gertaerok gure kulturari izandako eragin itzela balioestea, nor bere burua eta norbanako gisa bizi garen gizarte plurala hobeto ulertzeko.

2) Gaur egungo gizartean eta kulturari bizirik irausten Erromako eta Greziako elementu historiko, sozial, politiko, linguistiko eta kulturalak identifikatzea (tartean kultura greko-latindarrean erroturik zeuden sinesmen eta ohiturak ere bai), eta horiek guztiak modu kritikoan aztertzea, mundu klasikoaz norberak duen iritzi pertsonala aberasteko.

3) Zibilizazio klasikoak utzitako kultura-ondarea balioestea eta errespetatzea, eta ondare hori gozamen-iturri eta garapen indibidual nahiz kolektiboan aurrera egiteko bide dela aintzat hartzea, horrela hura zaindu eta hobetu beharrezkoak ulertzeko.

4) Norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza kondizioa nolakoak diren ulertzeko eta sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko, latinezko nahiz grekoazko testuak irakurri, iruzkindu eta interpretatu, eta literatura-ondare klasikoaz gozatzea eta ondare horrek informazio-iturri gisa duen garrantzia balioestea.

5) Mundu klasikoaren erlijioaren eta mitologia greko-latindarraren ezaugarriak ezagutzea, eta horiek gaur egungo artean izandako eragina balioestea, mundua sinbolikoki interpretatzeko balioa duten aldetik.

6) Hizkuntza erromanikoen jatorri eta bilakaera zein den jakitea, eta hori dela eta, hizkuntza horien ezaugarri komun eta bereizgarriez gogoeta egitea, hizkuntza-aniztasunak den-denon kultura-ondarea aberasten duela aintzat hartuz.

7) Termino berriak sortzeko eta objektu nahiz aurkikuntza berriak izendatzeko hizkuntza klasikoak zeinen baliagarriak diren ohartzea, eta termino horiek norberaren lexikoan txertatu eta zenbait komunikazio-egoeratan behar bezala erabiltzea, ikasleek ahozko nahiz idatzizko ulermena eta espresioa hobetzeko.

8) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta modu kritikoan erabiltzea, informazioa bilatzeko eta hautatzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.